BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5219

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, erantzuna bidaltzeko eta prozeduran interesdun direnak epatzeko dena.

M.ª Blanca Vadillo andreari ezin izan zaio jakinarazi 2012ko ekainaren 21eko eskabide-idazkiari emandako erantzuna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan ezartzen den moduan jakinarazten zaio hori, iragarki hau argitaratuz. Horren bidez, M.ª Blanca Vadillo andreari dei egiten zaio Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian ager dadin erantzun hori jasotzera, iragarki hau argitaratzen denetik, gehienez ere, hamabost eguneko epean, 08:30etik 14:00etara bitartean.

M.ª Blanca Vadillori jakinarazpena egiteko ematen da hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.